

## Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

|                            |                                                        |
|----------------------------|--------------------------------------------------------|
| Data eta lekua:            | 2021eko azaroaren 16an<br>Udaletxeko Udalbatza Aretoan |
| Hasiera eta amaiera ordua: | 18:00-19:30                                            |

### BERTARATUAK:

#### Talde politikoak:

LEHENDAKARIA: Jon Insausti\_EUSKARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA  
Aitziber San Román\_EAJ  
Zigor Etxeburua-EHBILDU  
Mikel Lezama\_PP  
Ane Oyarbide\_PSE

#### Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Ainara Vázquez\_BAGERA ELKARTEA  
Josune Otxotorena\_BERRITZEGUNEA  
Pablo San Vicente\_SHOPSS  
Aitziber Otegi\_AEK  
Eneritz Olaizola\_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA  
Maite Asensio\_URTXINTXA  
Zuriñe Porres\_IRUTXULOKO HITZA  
Birjinia Arzallus\_KUTXABANK  
Dani Goñi\_BATZEN

#### Euskara Zerbitzuaren langileak:

IDAZKARIAK: Edurne Otamendi (Euskara Zerbitzuaren burua) eta Inés Murillo (Euskara Zerbitzuaren Teknikaria)

### EZ DIRA BERTARATU:

Luis Mari Ralla\_BIZARRAIN  
Juantxo Iturria\_ELKARREKIN Donostia  
Andoni Iraola\_REALA (ezin etorria adierazi du)  
Beronika Azpillaga\_EHU  
Naiara Lopetegi\_EUSKADIKO KUTXA

## 1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Bilera-deialdiaren gai-zerrendako puntu gisa aurreko bileraren akta onartzea jarri ez denez, hurrengo deialdian biak onartuko dira, gaurkoa eta aurrekoa.

## 2. 2021 urteko balantzea

Bilera deiarekin batera bidalitako informazioa azaltzeari ekin dio Euskarako eta Kulturako zinegotzi ordezkariak buruak.

Euskararen Plan Orokorren hiru helburu estrategiakoak (1. Hiztun berriak sortzea eta lortzea, 2. Gizarte erabilera sustatzea, 3. Euskarazko sorkuntza bultzatzea) jomuga izanik, plana bera egituratzen duten esparruetako (Familia Transmisioa, Irakaskuntza, Euskalduntze Alfabetatzea, Arlo Sozioekonomikoa, Aisia eta Kirola, Kultura, Gorputz Plangintza eta Euskararen Kalitatea, Komunikabideak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eta Sentsibilizazioa eta Motibazioa) ekintza nagusiak eta berrienak nola burutu diren azaldu du Euskarako zinegotzi ordezkariak.

Aldez aurretik Kontseilu Sektorialeko kide guztiei ekintza guztien taula bidali zaienez, eta taula hori akta honi erantsiko zaionez, ez da beharrezkoa ikusi denak banan-banan azaltzea.

Kultur Aniztasunaren inguruan 2021ean zehar landu dena azaldu du lehenik. Etorri berrien elkarteein hainbat bilera egin dira eta, pixkanaka, hauek adierazten dituzten beharretatik eta ikastetxeek ere azaleratzen dituzten gabezietatik abiatuta, hainbat ekintza jarri dira aurtun abian Euskara Zerbitzuaren ekimenez: Altxako institutuan "Ongi etorri DBHra" ekimena jarri da martxan, lehen aldiz institutuan hasi diren gazteekin (1. DBH); "Antzerki-hizkuntza proiektua" LH5-6ko ikasleekin Santa Teresa eta Amasorrain ikastetxeetan; "Aisikasi" udako egitasmoaren jarraipena euskara maila urria duten 12-14 urte bitarteko gazteentzat, eta "Haurrak udan mintzajolasean" programa pilotua euskara maila urria duten 8-10 urte bitarteko haurrentzat. "Oporretan Euskaraz" jarduerak duen helburu eta hartzaile-mota zabal eta anitzarekin batera, gure hiriak dituen egoera desberdinak kontuan edukiz, behar jakinak dauzkaten egoerei neurriko erantzunak eman ahal izateko jarduerak dira hauek.

Horrez gain, Kulturgintzarekin eta Bertsolaritzarekin lotuta, bost jarduera jarri dira martxan. Eta sare sozialekin aipatzeko da "Twitch" plataforma: euskararen presentzia oso urria izanik, proba pilotu gisa, saio bat sustatzea erabaki zuen Udaleko Euskara Zerbitzuak, EITBrekin elkarlanean.

Dani Goñik, BATZEN-eko ordezkariak, zenbait kezka mahaigaineratu ditu: bere sentsazioa da euskara gero eta gutxiago erabiltzen dela Donostian eta atzera goazela. Bere esanetan, gure hirira bizitzera etortzen diren hiritar berriak nekez hurbilduko dira euskarara beharrik sentitzen ez badute. Euskara lanarekin lotzea da gakoa. Adibide gisa aipatu du azken boladan ostalaritza establezimenduei jartzen ari diren izenak, erabat erdaldunak.

Batzeneko ordezkariak Osakidetzan herritarrek dauzkaten eskubide urraketak ere aipatu ditu.

Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun du Udalak egoera horiek kontuan hartzen dituela eta beraien eskumenaren barruan daudenak saiatzen ari direla bultzatzen, eta beste batzuk beraien eskumenaren kanpotik gelditzen direla.

## 3. 2022rako aurrekontu proposamena

Euskara Zinegotziak Euskara Zerbitzuaren 2022rako aurrekontu proposamena azaldu du. Lan honen laburpena aldez aurretik bidali zitzaizen kontseilukideei eta akta honi erantsten zaio.

2021ean baino 200.000 mila euro gehiago aurrekusten dira aurtengo ekitaldirako "Euskara" eta "Itzulpena" programetan banatuta.

Ondoko aurrekontu sailak azpimarratu ditu:

Hirirako hizkuntza normalizazioan 2. kapituluko ondokoak nabarmendu ditu:

- KORRIKA: aurtengo edizioa Donostian bukatuko denez, honek eragina izango du aurrekontuan.
- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA: 2021ean 600 establezimendu bisitatu dira eta 2022an 1.500etara iristea da asmoa.
- EUSKARALDIA: 2022an Euskaraldia dinamikaren 3. edizioa izango da eta dagoeneko ari gara lanean BAGERA elkartearekin.

Udaleko hizkuntza normalizazioari begira, aurten, 6. plangintza aldiaren ebaluazioa egitea egokitzen da eta, besteak beste, udal langile guztiei galdetegi bat bidaliko zaie zenbait datu kuantitatibo eta kualitatibo lortzeko. Lan hori egiteko ere gorde da kontu sail bat 2. kapituluan.

4. kapituluan, dirulaguntzei buruzkoan, euskara ikasteko, auzoetako euskara planak dinamizatzeko eta euskalgintzarekin lotutako zenbait egitasmo laguntzeko urteroko dirulaguntzez gain, GARABIDEren proiektuarentzako dirulaguntza aipatu du zinegotziak: hizkuntza gutxiak dituzten herrialdeekin lankidetzan lantzen duen erakundea da Garabide eta, zehazki, Donostiako Udalak lankidetzan garatzeko asmoa du 2022an Yucatán penintsulako hiriburua den Mérida hiriarekin maia hizkuntzaren biziberritze prozesuan laguntzeko.

Bagera Elkarteko kideak esan du interesgarria izango litzatekeela 2022ko aurrekontua 2021eko datuekin batera ekartzea datuak konparatu ahal izateko. Hurrengo urtean horrela egingo dela erantzun zaio.

#### **4. Haurren aurrean helduok heldu egitasmoari buruzko azalpenak**

Euskara Zerbitzuaren buruak azaldu du Euskaraldiaren hirugarren edizioa 2022an egokitzen denez, 2021ean antzeko ariketa bat egitea proposatu duela Euskaltzaleen Topaguneak, *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena hain zuzen ere. Ariketa praktikoa izango da, azaroaren 22an hasi eta abenduaren 5ean amaituko dena. Ekimen honen helburua da guraso, hezitzaile, lagun heldu, zaindaria eta umeekin egoten diren bestelako senideek euren arteko -hau da, helduen arteko- hizkuntza-praktikak aldatzea eta euskara gehiago erabiltzea.

Euskal Herriko 80 udalerritan jarriko da abian ekimena eta baita Donostiako zenbait auzo eta ikastetxeetan ere.

#### **4. Betikoa Gertukoa kanpainaren nondik norakoak**

*Betikoa Gertukoa* kanpaina Eusko Jaurlaritzarekin eta beste zenbait erakunde eta udalekin batera egiten den kanpaina da. Euskara zinegotzi ordezkariak adierazi du Donostiako Udalak bigarren urtez hartuko duela parte ekimen honetan. Tokiko merkataritza eta euskara sustatzeko sentsibilizazio kanpaina modura dago diseinatuta. Azaroaren erdi aldetik Gabonak osterara arte egongo da komunikabideetan, euskararen eguna barne.

#### **5. 2021eko Euskararen Egunerako egitasmoa**

Euskararen Egunarekin lotutako jarduerak eta ekitaldiak azaroaren 24tik abenduaren 5era arte egingo dira Donostiako 10 auzoetan. Auzoetako euskara batzordeek antolatutako ekintzak izango dira.

Abenduaren 3an ekitaldi bat egingo da Udaletxeko Udalbatza Aretoan hainbat kirol-klubekin, KEES metodologiarekin bat egin dutenekin. KEES Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko egitasmo honen helburu nagusia da haur eta gazteek euskara erabiltzea eskolaz kanpoko kirol jardueretan.

#### **6. Norberak lekarkeena**

BATZENeko ordezkariak adierazi du Kursaalaren egiten ari den Nazioarteko "Gastronomika" Kongresuan euskaratu gabeko zenbait kartel jarri direla bide publikoan eta Udalak babesten dituen ekintzek Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpide berak bete behar dituztela. Ez duela

ulertzen, gaineratu du, Udalak nola laguntzen dituen hizkuntzen erabilera zuzena bermatzen ez duten jarduerak.

Haurren aurrean helduok heldu ekimenari buruz, berriz, esan du maizago egin beharko liratekeela horrelako ekintzak.

EHBILDUKo ordezkariak gogora ekarri du 2021ean 20 urte bete direla Donostiako Udalak lehen Euskararen Plan Orokorra onartu zuenetik eta 30 euskararen ordenantza onartu zuenetik. Bi urteurren esanguratsu iruditzen zizkiola gaineratu du eta Euskara Zerbitzuak honen inguruan zerbait egiteko asmorik ba ote duen galdetu du.

Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun du ez dela ezer berezirik egitea aurreikusi baina aztertuko dutela zerbait egin ote daitekeen.

Besterik ezean, bukatutzat eman du bilera lehendakariak 19:30ean.

2022an egingo diren bileren egutegia eta gai-zerrendak proposatuko direla eta kide guztiei helaraziko zaizkiela agindu du.